



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

# EHUko IKASLE KONTSEILUA BAIKOR DAGO ESTATUTU BERRIEN PROIEKTUA EZTABAIDATU ETA ONARTUKO DEN KLAUSTROAREN BEZPERAN

Puede leer la nota en castellano [aquí](#).

## PRENTSA-DEIALDIA

Klaustroaren apirilaren 21eko bilkura amaitutakoan, EHUko Ikasle Kontseiluko Lehendakariak, Iñigo Ugedok, komunikabideei erantzungo die Bizkaia Aretoan, eta Ikasle Kontseiluak bileraren balorazio publikoa igorriko du.

**Non:** Bizkaia Aretoa

**Noiz:** Klaustroaren bilera amaitzean

**Formatua:** aurrez aurreko adierazpenak eta hedabideei igorriko zaien balorazioa

**Leioa, 2026ko apirilaren 20a** – Oro har, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ikasle Kontseiluak bihar, apirilaren 21ean, Klaustroaren saioan eztabaidatu eta bozkatuko den Estatutu berrien proiektuaren irakurketa positiboa egiten du. Izan ere, Unibertsitate Komunitatearen antolaketa, gobernantza eta eskubide zein betebeharrak arautzen dituen oinarrizko arau instituzionala eguneratzeko aurrerapauso garrantzitsua dela uste du, eskubideen, partaidetzaren eta unibertsitate ereduaren arloan elementu garrantzitsuak txertatzen baititu.

Ikasle Kontseiluak joan den abenduan prozesu honen baitan oharrak eta hobekuntza proposamenak jasotzen zituen txosten propioa bidali zuela gogorarazi nahiko luke, Osoko Bilkurak onartu zuena eta zeinak ikasleriaren ordezkartzako kide anitzeko organo gorenaren jarrera instituzionala erakutsi zuen. Dokumentu horren bidez, ikasleriaren unibertsitate bizitzan zuzenean eragiten duten gaiei buruzko balorazio “eraikitzaile eta aldarrikatzailea” helarazi zuen. Era berean, Ikasle Kontseiluko kide batzuek testuaren idazketan hasieratik parte hartu ahal izan dute, eta horrek prozesu osoan zehar ikasleriak parte hartzea bermatu du.

Ikasle Kontseilutik balioan jartzen dugu Klaustrora iristen den testuak aurrerapen esanguratsuak jasotzea, hala nola, kontziliazioari, deskonexio digitalari eta osasun mental zein emozionalari lotutako eskubideen indartzea, bai eta ikasleriak unibertsitatearen gobernantzan duen rola definizio hobea ere, partaidetza areagotuz. Era berean, bereziki positibotzat jotzen dugu bozketara eramango den proiektuak euskal gizartean funtsezkoak diren konpromisoak berariaz jasotzea,



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

hala nola, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta indarkeria matxistaren aurkako borroka, pertsona ez-bitarren genero identitatearen aitortza, LGTBQ+ kolektiboarekiko errespetua, euskararen eta hizkuntza eskubideen defentsa eta garapen jasangarria. Gainera, bereziki azpimarragarria iruditzen zaigu, giza eskubideen eta bakean eta askatasunean oinarritutako bizikidetzaren defentsarekin bat etorritz, eta are gehiago bizi dugun testuingurua kontuan hartuta, testuak unibertsitatearen ezagutzaren transferentziaren esparrutik armagintza industria eta erabilera militarreko aplikazioak kanpo uztea.

Ikasle Kontseiluak azpimarratzen du, halaber, oso garrantzitsua dela proiektuak ikasleriaren ordezkaritza-, aldarrikapen- eta etenaldi akademikorako eskubideak bermatzea, bai eta Ikasle Kontseiluek ikasleriaren eskubideen defentsarako bide eta bitartekari gisa duten rola ere.

**EHUko Ikasle Kontseilua**



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

**Contacto:**

[ikasle.kontseilua@ehu.eus](mailto:ikasle.kontseilua@ehu.eus)

94 601 2448

X: @IkasleKontseilu

Instagram: @ikaslekontseilu

Linkedin: [www.linkedin.com/company/ikasle-kontseilua](http://www.linkedin.com/company/ikasle-kontseilua)

[www.ehu.eus/es/web/ikasle-kontseilua](http://www.ehu.eus/es/web/ikasle-kontseilua)

P R E N T S A O H A R R A